

**Lan Harremanen Kontseiluaren
txostena, 2019ko apirilaren 28ko
hauteskundeetako parte hartzearen
gaineko Agindu proiektuari buruz**



**LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN TXOSTENA, LAN ETA JUSTIZIA SAILBURUAREN
AGINDU PROIEKTUA, LANGILEEK, DAGOZKIEN ORDAINSARIAK JASOTA, 2019KO
APIRILAREN 28KO GORTE NAGUSIETARAKO HAUTESKUNDEETAN PARTE HAR
DEZATEN ARAUAK EMATEN DITUENARI BURUZ**

Aurrekariak

2019ko martxoaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justiziako Sailaren Lan eta Gizarte Segurantzako Zuzendaritzak idazki bat helarazi du Lan Harremanen Kontseilu honetara, langileek 2019ko apirilaren 28ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte hartu eta dagozkien ordainsariak jaso ditzaten arauak ematen dituen Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren Agindu proiektua bidaliz.

Agindu proiektuaren testua Lan Harremanen Kontseiluko Txosten Batzordeko kideei helarazi eta 2019ko martxoaren 11ko bileran jorratu zen.

Agindu proiektuaren testuari buruzko iritziak

Txostenaren gaia dugun Agindu proiektuaren testuak errepikatu egiten du, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Justiziako Sailak helburu berberarekin lehenago emandako beste arau batzuen edukia. Berberak dira, hain zuzen ere, eduki hori eta 2016, 2015 eta 2014an izan diren hauteskundeak zirela-eta Lan Harremanen Kontseilu honetan sartu zirenenak.

Honen aurreko proiektuen harira ere Lan Harremanen Kontseiluak eman izan ditu kasuan kasuko txostenak, eta bertan, sindikatu eta enpresaburu erakundeek izendatutako Txosten Batzordeko kideen iritziak jasotzen ziren.

Ikusirik gaur egungo arauaren testuaren eta haren aurretik izan zirenen arteko berdintasuna, LHKko Txosten Batzordeak, gai honen inguruan txosten horietan esaten zuena errepikatu nahi du oraingoan ere.

Horrenbestez, 2019ko martxoaren 11n egindako bileran jarraian ematen dugun txostena onartu da:

Txostena

Kontseiluko kideek beren adostasuna adierazten dute Agindu proiektuaren testuarekin, alegia, langileek, dagozkien ordainsariak jasota, 2019ko apirilaren 28ko Gorte Nagusietarako hauteskundeetan parte har dezaten arauak

**Lan Harremanen Kontseiluaren
txostena, 2019ko apirilaren 28ko
hauteskundeetako parte hartzearen
gaineko Agindu proiektuari buruz**



ematen dituenarekin, honako puntu honetan izan ezik:
Enpresaburuen erakundeak izendatutako kideen iritzian,
ordaindutako baimena bakarrik aitortu behar litzaieke
langileei beren lan jarduna eta hauteskunde kolegioen irekitze
ordutegia lau ordu edo gehiagotan bat datozenean.

Bilbo, bi mila eta hemeretziko martxoaren hamabian.